

GERNIKAKO BAKEAREN MUSEOA FUNDAZIOA

Sozietatearen izena

Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa-Fundación Museo de la Paz de Gernika

IFK

G95222949

Izaera

Fundazioa.

Kontabilitate-arabidea

Pribatua.

Aurrekontu-arabidea

Ez da aplikatzekoa.

Sorrera

Fundazioa irabazi-asmorik gabeko erakundea da, eta 2002ko irailaren 30ean eratu zen. Fundazioen Erregistroan inskribatu zen ["Gernikako bakearen Museoa Fundazioa-Fundación museo de la paz de Gernika" Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeari buruzko Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuaren 2004ko maiatzaren 3ko AGINDUA](#) betez.

Sail-atxikipena

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila.

EJSN

9102 Museo-jarduerak.

Fundazioaren xedea eta helburua

Fundazioaren xedea da "Gernikako Bakearen Museoa – Museo de la Paz de Gernika" zuzentzea, mantentzea, kontserbatzea eta sustatzea, eta, museo horretan, Bakearen kultura eta Gernika-Lumoko Historia sustatu eta hedatzeko eduki eta agiriak biltzea, gordetzea eta erakusgai jartzea. Gainera, Gernikako Bonbardaketari buruzko Dokumentazio Zentroa antolatuko da Museoaren barruan.

Sailkapena kontabilitate nazionalean


Sozietate ez-finantzarioak.

Fundazio-zuzkidura

18.000 €

Fundazio-zuzkiduraren osaera

EAEko Administrazio Orokorra	% 33,33
Bizkaiko Foru Aldundia	% 33,33
Gernika-Lumo Udala	% 33,33



Patronatua

Patronatua fundazioaren gobernu, administrazio eta ordezkartzarako organo gorena da, eta bere kontu izango ditu fundazioaren helburuak gauzatzeko beharrezkoak diren kudeaketaren gidaritza eta kontrolko eskumen guztiak. 2012ko ekitaldia ixtean, Patronatuak honako kide hauek zituen:

José M ^a Gorroño Etxebarrieta jauna	Presidentea. Gernika-Lumoko Udala.
José Luis Bilbao Eguren jauna	Presidenteordea. Bizkaiko Foru Aldundia.
Begoña Landa Torre andrea	Gernika-Lumoko Udala.
Naiara Urberuaga Erkoreka andrea	Gernika-Lumoko Udala.
Josune Aristondo Akarregi andrea	Bizkaiko Foru Aldundia.
Gonzalo Olabarria Villota jauna	Bizkaiko Foru Aldundia.
Blanca Urgell Lázaro andrea	EAEko Administrazio Orokorra.
Antonio Rivera Blanco jauna	EAEko Administrazio Orokorra.
José Luís Iparraguirre Mujika jauna	EAEko Administrazio Orokorra.

2012ko ekitaldiko urteko kontuak

[2012ko abenduaren 31ko urteko kontu laburtuei eta auditoriari buruzko txostena.](#)

2012ko ekitaldiko ekonomia- eta finantza-magnitute nagusiak

Aktiboa guztira	193.662 €
Ondare garbia	134.807 €
Salmentak eta merkataritza-jarduerako beste sarrera batzuk	15.375 €
Batez besteko langile-kopurua	2

Sozietatearen helbidea

Foru Plaza z./g. - 48300 - Gernika-Lumo (Bizkaia)

Webgunea

www.museodelapaz.org